

# EULIAK, LEHEN ASTRONAUTAK



**Nagore Irazustabarrena**  
**Uranga**

@irazustabarrena

Baikonur (Kazakhstan, SESB), 1957ko azaroaren 3a. *Sputnik 2* ontzia espaziora jaurti zuten, *Laika* (errusieraz, "zaunkari") izeneko txakurra barruan zeramala. Beraz, 60 urte bete berri dira lehen izaki bizidunak Lurra orbitatu zuela. Baina horrek ez du esan nahi, pentsatu ohi den bezala, *Laika* espaziora iritsi zen lehen animalia izan zenik, ezta lehen ugaztuna ere. 1949ko ekainaren 14an AEBek *Albert II* izeneko tximinoa (zehazki, rhesus makakoa) bidali zuten lurraletik 134 kilometrora. AEBetako Aire Armadaren definizioaren arabera, espazioa lurraletik 80 kilometrora dago eta nazioarteko definizioaren arabera, 100era.

Baina ez *Laika* ez *Albert II* ez ziren izan muga hori gizakiek behartuta gainditu zuten lehen animaliak.

1947ko otsailaren 20an White Sands Missile Range (New Mexico, AEB) base militarrean V-2 suziria jaurti zuten, barruan, arto hazi batzuekin batera, hainbat ozpin-euli (*Drosophila melanogaster*) zeramatzala. suziria lurraletik 109 kilometrora iritsi zen handik hiru minutu eta hamar segundora, eta, hortaz, euli haiek izan ziren lehenak espaziora iristen. V-2 suziri hura estatubatuarrek alemaniarrei Bigarren Mundu Gerraren amaieran atzeman zieten, gerrako harrapakin gisa. Beraz, naziek ga-



RARE HISTORICAL PHOTOS

V-2 suziria jaurtizteko prest, Cuxhavenen (Alemaia), 1945ean. Bi urte geroago, alemanei kendutako horrelako suziri batean eraman zituzten lehen animaliak espaziora.

ratutako teknologiarik esker lortu zen balentria hura.

Ozpin-eulien misioaren helburua bidaia horiek -altuerak, azelerazioak eta, bereziki, erradiazioak- duten eragina aztertzea zen. Eulien eta gizakion sistema immunologikoa antzekoak dira eta, gainera, euliak oso azkar ugaltzen dira eta, horri esker, espazioko bidaiek hainbat belaunaldiko izaki bizidunen-

gan dituzten efektuak aztertzeke aukera ematen dute.

1947ko misio hartan, behin espaziora iritsita, V-2 suziriak *Blossom* kapsula jaurti zuen, eta kapsula atmosferan erori zen. Airearen marruskadurak, lehenik, eta jausgailu batek, gero, kapsula geldiarazi zuten, eta lehen euli astronautak bizirik berreskuratu zituzten, *Albert II* eta *Laika* gaixok ez bezala. ■



THE TAYINAT ARCHAEOLOGICAL PROJECT

## Bost metro inguruko garrantzia

Turkiako Tayinat aztarnategian, Burdin Aroko Patina erresuma hititaren hiriburu Kunuluaren arrastoaren artean, 3.000 urteko emakumezko estatua baten burua eta gorpuz-enborra aurkitu dituzte. Osorik ez dagoen arren, eta antzinaroan desitxuratu zuten arren, basaltzoko eskulturak lau edo bost metro zituen. Adituek ez dakite nor irudikatzen

duen: Kubaba, antzinako Anatoliako jainkoen ama; Suppiluliuma erregearen emaztea; ala Kunuluaren fundatzaile Taitaren ama? Proiektuko zuzendari Timothy Harrisonen ustez, "estatuak argitu dezake Burdin Aroko lehen komunitateetan emakumeek pentsatu baino garrantzi politiko eta erlijioso handiagoa zutela". ■